

Olatzagutia

Aurkibidea

Udalerria: Olatzagutia

Sarrera



Olatzagutia Sakanako eskualdean kokatutako udalerria da; Burunda bailaran, hain zuzen ere. Altsasurekin egiten du muga iparraldean eta ekialdean, Ziordiarekin mendebaldean, eta Urbasako mendizerrarekin hegoaldean.

- **Biztanleak:** 1.552
- **Euskaldunak:** %21,04

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **5**
- Transkribatutakoak: **4**

- Audioak: **5**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Josefa Ezker Mikelez (1908)

Olazagutian jaioa 1908an. Gurasoak ere Olazagutikoak zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Jaiegunetako diru-biltzeak

- **Hizlaria(k)**: Ezker Mikelez, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: OLZ-001/001
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Eguberrietan eskean irteten zirenean erabiltzen zuten esaldia: "ogi-pazter, talua janda, ogiya laster". Santa Ageda egunean abesten zuten kanta.

Transkripzioa

- Salíamos a pedir, decíamos: "Ogi-pazter, talua janda, ogiya laster".
- Nola, nola, zer esaten zenuten?
- Ogi-pazter, talua janda eta ogiya laster.
- Ogi-pastel?
- Ogi-pazter... talua janda eta ogiya laster.
- Eta 'ogi-pazter' zer da?
- Pues no sé lo que quiere decir eso, pero así cantábamos.
- Eta hori noiz kantatzen zenuten, Eguberrietan?
- Bai, bai.
- Etxez etxe?
- Etxerik etxe.
- Ze ordutan ateratzen zineten?
- Ah, goizian!... goizian, bai.
- Eta nondik ateratzen zineten? eliza ondotik, edo...?
- Bah! etxerik etxe, da erri guztiyan, eskëan, ibiltzen gindan; ta gero Santa Ageda egunian ere? ba orduban ee... esaten e-, kantatzen genduen... je! si

me sale, e? diré bien... El otro día estuve, ah! yo misma cantando y no...
ahora no me acuerdo...

- Santa Ageda egunean?

-

SantAgeda eguniän:

Bedikatuba izan dailela

Etxe onetako jentia

Pobriezaun erdiaun biar dekö

Pakia ta osasuna

El día Santa Agueda... cantábamos.

- Hori bakarrik?

- Eta gero berriz e:

Santa Ageda

Mayan geda

Arraemayuen saguba

Aren espera katuba...

Gero... bueno, no tiene qué ver nada, pero... andra bat ibiltzen tzan eskian, eta andra bat ezkide espera esaten tzeon: "Neska, Lutxi, beti eskian abil! eztakin kantaitti ura? artzen badakizu ematen ikasi, bestela ibilduko zada lagunaren igasi". Eta, la que pedía decía: "A, tontöa! ori eztön kantaittëa, ori kontuba dö(n)".

- Ah, burua ona duzu, e?

- Bai...

- Ongi gogoratzen zara...

- Bai-bai; ta olaxe.

1.2. Jaiegunetako diru-biltzeak Olaztin

- **Hizlaria(k)**: Ezker Mikelez, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: OLZ-002/002
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:08:29. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Eguberrietan eskean irteten zirenean erabiltzen zuten esaldia: "ogi-pazter, talua janda, ogiya laster". Santa Ageda egunean abesten zuten kanta.

Transkripzioa

-“Salíamos a pedir”.

-Euskaraz, euskaraz.

-“Decíamos”: ogi-pazter, talua janda, ogiya laster!

-Nola? Nola? Nola? Zer, esaten...?

-Ogi-pazter, talua janda, eta ogiya laster.

-Ogi-pazter!

-Ogi-pazter, talua janda, eta ogiya laster.

-Eta ogi-pazter zer da?
-“Pues no sé lo que quiere decir eso, pero así cantábamos”.
-Eta hori noiz kantatzen zenuten? Hori noiz, eguberritan?
-Bai.
-Eguberritan, e?
-Bai.
-Etxes etxe?
-Etixerik etxe.
-A, etxerik etxe, e?
-Bai.
-Ze ordutan ateratzen ziñeten?
-E?
-Ze ordutan atatzten ziñeten?
-A! Goizian.
-A, goizian, e?
-Goizian, bai.
-Eta, nundik atatzten ziñeten? Eliza ondotik edo?
-Ba! Etixerik etxe ta herri guzian, eskian, ibiltzen gindan. Eta gero Santa Ageda egunian ere, ba, orduban, e... Kantatzen genduben. “Si me sale eh, diré bien. El otro día estuve, yo misma cantando y no... ahora no me acuerdo”.
-Santa Ageda egunian?
-Santa Ageda eguniän:

Dedikatuba izan dailela etxe honetako jentia.
Pobria [taun erriau ia deko] pakia ta osasuna.

“El día de Santa Águeda, cantábamos”.
-Hori bakarrik?
-Eta gero berriz’e:

Santa Ageda, mahaian gEDA,
arramaiyoan saguba, harren espera katuba!

-Hara, hara, hara! “Cómo salen las cosicas e”?
-Gero, “bueno no tiene que ver nada, pero...” Andra bat ibiltzen zan eskian, eta, andra bat [...] espera esaten zeon: “neska, beti eskian habil! Ez dakin /eztakin/ kantan eiten o? Hartzen badakizu, ematen ikasi! Bestela ibiliko zara lagunaren iyasi”. Eta “la que pedía decía”: “A tonta, hori ez don kanta eitia, hori kontuba don!”.
-A, begira, begira.
-“Tonterías son”!
-Hori, hori pollita da e?
-Bai?
-Bai, oso polita, oso polita da. Burua ona duzu e! Buru argiya!
-Bai!
-Ongi gogoratzen zara! E?
-Bai, bai.
-Kontxo, kontxo, kontxo...
-Ta holaxe!

2. Aisia

2.1. San Juan eguneko ospakizunak

- **Hizlaria(k):** Ezker Mikelez, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** OLZ-001/002
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:02:54. **Bukatu:** 00:06:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** San Juan egunean herrian egiten ziren ospakizunak. San Juan sua.

Transkripzioa

- Gero, San Juan egunian ere? orduan ee... ya a una... plazara, plaza le... jarritze gintzan? eta orduan ematen zein ardua, arra(t)saldëan? arrasal(d)e... txun-txunaki? eta... ematen tzein ardua eta gaztaiyä, plazako... jende guztiyari; eta... gero San Juana da... kantaita? bāia ez, oi eztakit.
- Ah, San Juanen kantaita ez dakizu, e?
- Asieria, asieria badakit baya bestela ez.
- Tira ba, eman hasiera...
- "Irurak iru dira, irurak e mendi(r)a", pero, no sé más seguir.
- Eta paratzen zen arbola?
- Bai, ta San Juan egunian e, plaza erdiyan, jartzen tzein e... abaitz8 aundi bat... Gero, patzen tzein ee, igual e... öilaxko bat edo, puntan, e? eta, orduan e... gizonak ee... bah! iya, nork e... iristen zein e... uilaxk ura; baya, ez ziteke izan? zengeiti... untatzen tze-, eztakit zerekin untatzen tzein ta...
- 'Sebo' edo, zerbaitekin...
- Irrixtratu iten ziran eta bota, lurrera; ta olaxe.
- Eta apezak eta... apizak, benedikatzen zuen arbola?
- Bai... bai.
- Nola esaten duzue hemen? apeza, apiza edo apaiza... nola?
- Apiza... apiz bat; ta gero, mezara faten ginden, domekatan ba... meza nagosiyaa, badakizu. Ta... bueno, orduban ee... jendia... asko faten tzen9 elizara; orai ezta faten eunbeste, je!
- Ez, ez-ez-ez; orai gutxi, e?
- Orai gutxi faten da; eta olaxe ba.
- Eta etxe-atarietan, egiten zen sua?
- Bai, bai, bai... suba iten tzan; joe! patzen genduen or... maiz-lastöa, badakizu maiz-lastöa zer dan?
- Maiz-lastoa?
- Maizëan... lastuak, eta... bedarrakin-da monton aundi bat patzen, patzen genduben? eta su(b)a eman? da gero, saltoka an! gaztiäk...
- Haren gainetik?
- Arren gaineti, suban gaineti... ta olaxe.
- Eta salto edo jauzi egitean, zerbait esaten zen?
- Eh! eniz akordatzen ere!...
- 'San Juan bezpera, sarna fuera' edo... horrelako zerbait?
- Eh! e... eniz akordatzen!
- Zenbait herritan esaten omen zuten 'San Juan bezpera...' ta holako zerbait, ez?
- Bai, alako... zerbeit bai.
- Baina ez zara gogoratzen...
- Ez! eniz akordatzen; aztu iten da!

2.2. Inauterietako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Ezker Mikelez, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: OLZ-001/003
- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:06:27. **Bukatu**: 00:11:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena**: Inauterietako kontuak. "Zomorroak" esaten zioten.

Transkripzioa

- Eta inauteriak egiten ziren hemen? ihoteak? karnabalak?
- Karnabalak? bai baya orduban, gabai artan ee... ez zago, orai bekela ez, ez... zurian, zamarrak; zomorrua esaten gendu(b)en.
- Zomorruak?
- Zomorruak...
- Altsasun 'momotxorroak' edo... Hemen 'zomorruak'?
- Emen? zomorruak; jazten ziran e... gizonak ee, an(d)rein, an(d)reain e... gona aundiyeiki? eta... bah! andra bat bekela, jazten zren gizonak, eta gero, eskoba aundi bat artzen tzein, eta... ere-, neskain segi!
- Eta mutiko koxkorren segi ere bai?
- Bai-bai, bai... baya orai, orduban ez zan e... orai bekela karnabalak eta... ez ziran.
- Eta orain ere ateratzen dira zomorruak?
- Orai? orai ee... atratzen dira, bai... bai.
- Eta zer beste (jazten dute)? gona luzeren edo sonbreroren bat edo, aurpegia tapaturik edo?
- Bai, arpegiya tapaturik eta ez... ez zain, ez ziran ezautzen nor ziran, eta alaxe.
- Eta asko biltzen dira?
- Bai, bai, bai, bai; orai ee... atratzen dira're ta... baya diferentia da.
- Eta zer, eramaten dute musikarik edo?
- Bai, musikka, ola... zera, danbolina; gabaiy artan, e?
- Eta sonatzeko? flauta edo txistu edo zer?
- Txisttuba, bai, txistuba... bai.
- Eta akordeoia ez...
- Bah! garai artan ere bai, asko ez baya... bazon orduan kordëona're, bai.
- Eta orain?
- Orai? eztakit, orai... oraiko modia eztaki nik; eztakit orai. Orai atratzen dia, bai, baya, gero... gurdiyan tzärrak, zerakin ona... baltzerr andi bat, artzen zein eta, astakeriyak itten zian ordu(b)an!
- Zer esan duzu? ez dut ongi konprenitu; gurdi batean, zer egiten zuten?
- Ba... zerriak, zerriak, baltzerria esaten gendu(b)en.
- Baltzerria?
- Baltzerriak; zerr andi bat, eta baltzerriak; orduan ee... artzen zein eskuben ta... ba-, badakit, astakeriak iten ziren, ordu(b)an.
- Eta baltzerria zer da?
- Baltzerria? ba... baltzerria? ola, gurdiya... badakizu zer dan, gurdi bat bekela?
- Gurdia, un carro, bai...
- Bai, ba ola... faten ziran ee... por ejemplo, faten gindanian ee... bedarra exke, o... gariyak e... eske, baltzerriak, sartzen ziran zerra batzuk ba... gurdiyan; oi da balzerrä. Bai, baltzerria? au, zera aundi bat zan, eta zerriä? zerria ttikiyo... pa(a)tzen tziran, lau z-, lau zerra ttikiyäk? eta... ahora, atzekaldian eta aurrekaldian? iru balzerra? gero paatzen tzirän... ola, o bedarra, o... sujetatzeko, ez botatzeko.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. San Juanak Olaztin (OLZ-002/001)

San Juanak Olaztin. Iturrira joaten ziren goizean; ur bedeinkatua. Ira ekartzen zuten menditik eta etxe atarrietan botatzen zen intsusarekin batera. Meza Santa Maria ermitan, txistulariak... Ardo zahagia. Arbola jartzen zen plazaren erdian. San Juan bezperan sua egiten zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com